

# 2014-05-10 ASANBLEAKO AKTA

Dinamizatzailleekin batera, 30 pertsona bildu dira asanblean.

Sarrera

- Atarikoaren azalpena
- 3km hasita dago eta horrela jarraituko du...
  - +oinarri filosofikoen berrikuspena
  - +gazte gabezia eta hauek egindako planteamendua entzun eta aztertu
  - +partehartzea gehitzeko bultzada
- Jolasak
- 2 talde nagusi: 26 urterartekoak, 26tik aurrerakoak. Launako taldetxoetan banatuta. Ariketa, honako puntu hauen lantzea:
  - Oinarri filosofikoak nabariak dira Astraren egunerokotasunean?
  - Zer/zeintzu falta dira?
  - Zer / zeintzu gehituko zenituzte?
- Astrako eguneroko dinamika eta ekimenetan printzipio filosofikoak kontutan hartzen dira? Ze hutsune? Norbera Astran, nire taldea Astran, Astra bere osotasunean

## ONDORIOAK

Gazteak:

1go taldea:

- Alternatiba sozioekonomikoa sustatu beharra
- Astragida herrira zabaldu beharra. Etxeetan Astran gaineko iritzi baten beharra somatzen dute
- Lonjetara hurbildu, Astraren historiaren transmisioa egitea (instian, Astra udaletxearen menpeko Kafe Antzokia dela uste dute askok)
- Gazteen gabezia, eurengana hurbiltzen gainditu
- Eraikinean infoa agerikoa izatea (adibidez, filosofia errotuloetan ikusi ahal izatea; zenbait gauza zehatz)
- Genero protokolo bat Astrako ekimenetarako ( portaera mota batzu ezin dira Astran emon)
- Generoa egunerokotasunean: hausnarketaren beharra
- Parekidetasuna pertsonen artekoa, generoa gaindituz

2. taldea:

- Gazte espazioa (2. Solairua?)
- Astran erratzeak beldur ematen duela diote, parte-hartzeari beldurra diotela. Erreibindikazio modura botatzen dute: "Astra erratzeko espazioa izan behar du"
- Indibidualki partehartzeko aukera. Ez dute itzulera soziala ondo betetzen denik ikusten. Baliabide giza-ekonomikoari, zentzu aldaketa ematea, trukea aldarrikatzen dabe itzulera sozial moduan. Trukea sustatzea, "giza" baliabideak bultzatzea.
- Astra, borrokak aurrera ateratzeko eta borroka kalera atareteko espazioa dela, erakutsi herrian.

## 26 URTETIK GORAKO TALDEAK:

1-

- Jendeak sentitzea denontzako dela, ez eskusiboa, ez partidista

2-

-Internazionalista izatea.

-Identitate sexualen errespetua ematea.

-Eredu ekonomikoa lantzen duten ekimenak falta dira. Printzipio moduan jarri eta landu.

-Kapazitate ezberdinen sustapena (ez diskapazitateen errespetuaren begiradatik –hau barneratuta dago Astran-, ez gabezien begiradatik, baizik dagoenaren gorai patzetik).

-Euskera lehen hizkuntza den arren, baliabideak bilatu euskera ez dakitenak kanpoan ez geratzeko, baita informazioa hauei nola helarazi pentsatu behar da.

-Oroimena: memoria garaikidea eta identitatearen inguruan lanketa. Izaera historiko-sozialaren kontzientzia landu. Ez gatoz identitate hutsetik, aurrekariak ditugu, azken 30 urteetan mogimendu sozialen garapena izugarria izan da, jardunaldiak, informazioa, jendea gonbidatu... Lantzekoa litzateke

-Antimilitarismoa landu: gizarte ereduak, armak eta Astra. EH eta desmilitarizazioa. Zer aportazio egin diezaioke Astrak mogimendu honi? Printzipioetatik praktikara pasatu. Harremanetan jarri, agian jardunaldi batzuentzako espazioa eta baliabide fisiko eta historikoak emon ditzazkegu. Kanpainiak egin, industria honen aurka ahotsa altxatu modu publikoan...

3-

-Saregilea

-Kontzientzia politikorako gunea (subjektuak piztuarazi prozesu eraldatzileak aurrera eramateko)

-Norbanako eta taldearen arteko oreka landu. Taldea Astra bera izan daiteke, baia identitate kolektibo potente horrek, ezin dezake norbanakoaren identitatea jan.

-Aurrekoarekin lotuta baina aparte; pertsonen zaintzak.

-Kultur sorkuntzarako espazioa: gabezia dago, sortzaile askok ez dute astra ezagutzen. Sortzaileak eta ekimenak identifikazea eta "zertamen" artistiko batzuk egitea proposatu.

-Antimilitarista: identifikatzea kostetan da eta sinbologia aprobetxatu beharra ikusten dute, baia ez dakite nola. Proposamena:objezio fiskala eta desarmea: gernika fusilaren aurkako kanpainia

-Belaunaldien arteko espazioa: tarteko belaunaldien arteko espazioa bihurtu da, ez daude gazte ezta zaharrak ere. Belaunaldi ezberdinei zuzendutako ekimenak falta dira.

4-

-Genero berdintasuna sustatzeko hitzaldiak eta sentsibilizazio kanpainak. Gaiaz dakitenak erakarri behar dira

-Kanpainak: itzulera soziala duten ikastaroak ere (Banco del tiempo, denboraren funtsa

-Kultura desberdinetako elkarrekin heldu beharra dego bileretako deialdiekin.

-Jaialdi tematikoen beharra. Kultura ezberdinak erakarri behar: musikari, idazle...

Agurra eta luntxa; ortutik ahora, lurgozo eta astraren arteko ekimen berri baten eskutik.

Maiatzak 24, goizeko 10:30tan izango da 3km-ko 2. asanblada